



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1996ko abenduaren 17a

69 ZK.

---

### A U R K I B I D E A

A SAILA:

**Foru Lege Proiektuak:**

- Maiatzaren 14ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 6/1992 Foru Legeko hainbat agindu aldatzen dituen Foru Lege proiektua. Aurkeztutako emendakinak (2. or.).
- Balioak Eguneratzeari buruzko Foru Lege proiektua. Aurkeztutako emendakinak (8. or.).
- Foru Lege proiektua, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzkoa. Aurkeztutako emendakinak (12. or.).
- Foru Lege proiektua, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzkoa. Atzera bidalitako proiektua (13. or.).

---

**A Saila:**  
**FORU LEGE PROIEKTUAK**

---

**Maiatzaren 14ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko  
6/1992 Foru Legeko hainbat agindu aldatzen dituen Foru Lege proiektua**

**AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK**

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritako betez, Maiatzaren 14ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 6/1992 Foru Legeko hainbat agindu aldatzen dituen Foru Lege proiektuari aurkeztu zaizkion emendakinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agintzen da. Proiektu hori 1996ko azaroaren 21eko 62 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 5ean

Lehendakariordea: M<sup>a</sup> Rosario Villanueva Iturralde

**OSOAREKIKO EMENDAKINAK**

**«NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA»**

**PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Maiatzaren 14ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 6/1992 Foru Legeko hainbat agindu aldatzen dituen Foru Lege proiektuari osoko emendakina aurkezten dio.

Zioak: Lege proiektuak badauzka neurri zenbait Gizarte Segurantzak norberaren kargura dagoen seme-alaba bakoitzagatik ordaintzen duen famili prestazioari buruz, baita Estatuko Administrazioan ezgaitasunagatik dauden pentsioei buruz, pentsio planetarako diru-ekarpenei buruz eta ondarearen gehitze eta gutxitzei buruz ere.

Eraberritze guztiak dakar kapital errenten zerga baldintzak hobetzea, zama aurrerakoitasunaren orde zama proportzionala ezartzen baita, Errentaren gaineko Zergaren izaera hausten delarik. Gizartearen parte txikienari egiten zaio on,

hain zuzen ere, kapital errenta tasa batzuk hartzen dituztenei, gainerako tasen eta lan errenten kaltetan. Tasa-aurrerakoitasuna proportzional bihurtzean, batz besteko zama tasa altua aplikatu dakiekeen subjektu pasiboan onerako da, alegia, errenta gehien daukaten errenta-ordaintzaileen onerako, aurrerakoitasuna iraultzen delarik.

Neurri berri hauek bultzatu egiten dute PFEZ lan errenten gaineko zerga bihurtzera, kapital errenten zerga-zama txikiagotzen dute eta.

Zergaren banaketa eginkizunean eragin negatiboa du, baita finantza askietasunean eta inbertsioan ere.

Gure Taldearen aburuan, ekimen hori fiskalitate gutzia bil lezaketen neurri batzuen barruan bai ez liteke modu positiboan baloratu. Hori horrela, kapital errenten mozkinak lan errenten fiskalitatearen hobekuntzarekin orekatuko lirakeke, hauen zerga ahalegina gutxituko delarik eta sistemaren aurrerakoitasun eta berdintasunari eutsiko litzaiokeelarik. Orobat, iruzurraren aurkakako neurriekin, batik bat elkartasun ez nabarmeneko sektoreetan, mozkinak eta betebeharrak orekatuko lirakekeelarik. Horregatik denagatik Erabaki hau hartzea proposatzen dugu:

“Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 126.5 artikuluan ezarritakoaren bat, itzuli egiten zaio Gobernuari Maiatzaren 14ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 6/1992 Foru Legeko hainbat agindu aldatzen dituen Foru Lege proiektua.”

**«IZQUIERDA UNIDAKO  
EZKER BATUA DE NAVARRA»**

**PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Maiatzaren 14ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 6/1992 Foru Legearen

hainbat agindu aldatzen dituen Foru Lege proiektuak eraso bortitza egiten dio Konstituzioaren arabera zerga ereduari. Ondarearen gehitze irregularren tributazioko aurrerakoitasuna kendu nahi du. Hori dela eta, zerga eredu berria sortzen ari da, Konstituzioan zehaztua dagoenarekin bateraezina dena.

Izan ere, Nafarroako IU-EBren arabera, proposatzen den eraberritzeak hautsi egiten ditu Konstituzioan agertzen diren berdintasun, aurrerakoitasun eta gaitasun ekonomikoaren arabera tributazio hatsapenak, horiexek baitira Konstituzioak zerga eredutako darabiltzanak.

Hori horrela, komenigarria da gogoan izatea UPNko Gobernuak Parlamentura dakarren eraberritzearen edukiaz (funtsean, Gobernu zentralak ekainaren 7ko 7/1996 Errege Dekretu-Legearen bidez onarturikoa bezal-bezalakoa den horretaz) Diputatuen Kongresuko Parlamentari Talde Sozialistak aurkeztu duela errekurtsioa bat Konstituzio Auzitegian eta goi mailako auzitegi horrek biderapenerako onartu duela.

Izan ere, zama bakar bat izateko arautzeak berarekin dakar onartzea hiritarrek ez dutela tributatu ez sorturiko errentaren arabera (eginiko ondare-gehitze irregularren kasuan), ez eta beren gaitasun ekonomikoaren arabera ere, gehitze horien tributazioa izan litezkeen bestelako errenta iturburuetatik bereizten baita.

Nafarroako Parlamentuak baztertzeko ez baldin badu UPNk gorpuzten duen eskuinak proposaturiko eraberritzea, ondare-gehitze handiak sortzeko gaitasuna duten subjektu pasiboek pairaturiko zerga zama nabarmenki jaitsiko da (gehieneko tasa %54koa duen eskalatik %20ko tasa bakarera iraganen da) eta, horrekin batean, gehienak diren milaka inbertitzaile txikik ordaindu beharreko kuota gehitu egin daiteke.

Labur bildurik, eraberritze honek esan nahi du aurrerakoitasuna ezetsiko duen zerga eremu berria sortuko dela, zama tasa proportzionala ezarriko baita, Nafarroako IU-EBren arabera, Konstituzioarekin bateraezina dena.

Gainbalio irregularren trataeraren eraberritzeak errenta handiak baditu onuradun, berdin esan daiteke Lege proiektuan proposatzen den gainerrakorako neurriaz.

Alegia, pentsio plan eta fondoetarako legezko diru-ekarpenari dagokionez zerga oinarritik kentzen den diru kopurua 1.000.000 pezeta egin arte gehitzean, errenta handiak dauzkaten zergadunei ez besteri egingen zaie on. Izan ere, lanagatik edo enpresa edo lanbide jarduerengatik urtean

5.000.000 pezetatik goitiko errendimendu gordinak dauzkaten subjektu pasiboek bakarrik lotzen ahalko diote pentsio planetarako diru-ekarpenengatik zerga oinarrian izan litezkeen gutxitzeen gehitzeari.

Zerga mozkina egonen da, berriro ere, gure komunitateko jendetzaren batez besteko errenta maila baino anitzez handiagoak diren horietan.

Horregatik, Nafarroako IU-EBk oso gaizki deritza Gobernuak aukezturiko Lege proiektuari. Hona hemen gure jarreraren oinarritzko ardatzak:

– Eraberritzeak errenta handiei bakarrik egiten die on eta, hortik aparte, gainbalioetako zama tasa bakarraren bidez, errenta ertain eta apalen gaineko zerga zama handitu egingen da.

– Konstituzioan zehazturiko zerga sistema modu larrian hausten da. Ekin egin zaio zerga eredu berria osatzeari, aurrekortasuna ezetsiko duena, eta, hortakotz, bidegabekeria, elkartasunik eza eta Konstituzioaren eremuarekiko bateraezintasuna izanen dituen ezaugarri.

– Beste zerga administrazio batzuek harturiko neurriak kopia egin dira funtsean. Hortakotz, uko egin zaio autonomoa eta bereiztua izan beharko lukeen zerga politikari.

Horregatik denagatik Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra Parlamentari Taldeak proposatzen du Maiatzaren 14ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 6/1992 Foru Legearen hainbat agindu aldatzen dituen Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakiola.

## «EZKER ABERTZALEA»

### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Adolfo Araiz Flamarique, "Ezker Abertzalea" Talde Parlamentarioko eleduna naizen honek, Legebiltzarreko Araudiko 126. artikulua ariora, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 6/1992 Lege Foralaren aldakuntza eredu-tzeko asmoa gauzatzen duen Foru Lege proiektuari osotasuneko emendakina aurkezten diot, eskatuz Nafarroako Foru Aldundiari itzul dakion.

Hona eskakizun horren argudioak:

Lege proiektu honek eraso bortitza suposatzen du pertsona fisikoen errentaren gaineko zergak behar duen gehiagotzeari dagokionez; zeren eta deuseztatu egiten baitu ezarpen maila edo tipoa berdindurik. Gainera aldaketa honek ondare gehiagotzeari edo patrimonioko plusbaliei dagoen erabilpen fiskalaren hobetze bat dakar, inola-

ko premia sozialik ez dagoen arlo batean; guzti horren ondorioa, berriz, kapitalaren errentei buruzko zergak murriztean Hazienda Foralak bilketa tikiagoa eginen du eta azkenik zerga batzuen zama haundiagotzea edo-eta eduki sozialeko gastuak murriztea gertatuko baita.

**«EUSKO ALKARTASUNA-ASKOTARIKO»**

**PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Osootasuneko emendakina proiektuari, Gobernuari itzul dakiola proposatzen duena.

Zioak: Parlamentari Talde honek, proposaturiko eraberritzearen hein bateko kontuekin bat badator ere, hala nola elbarritasun eta ezgaitasunen ariko kenkariei pentsio fondoetarako diruekarpenei dagokienean, ezinbestekotzat jotzen du Pertsona Fisikoen gaineko Zergaren azterketa orokorra egitea, zerga arautegia eta haren balizko aldaketa aztertzeke sorturiko Batzorde berezian, aldaketen ondorioak neurtzeko, errenten izaeraren arabera izan litekeen bereizkeria saihesteko eta Foru Lege proiektuak gainbalioei dagokienean proposatzen dituen aldaketetan zergaren aurrekoitasunaren gaineko ondorioak neurtzeko.

**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»**

**PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

“Socialistas del Parlamento de Navarra” Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 126.5 artikulua arabera, osootasuneko emendakina aurkezten dio maiatzaren 14ko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 6/1992 Foru Legearen hainbat agindu aldatzen dituen Foru Lege proiektuari.

Zioak: Gobernuak aurkeztu duen Foru Lege proiektuak ez du aurrekoitasuna errespetatzen, berez, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ezaugarria izan behar duena.

Proiektu honekin indarrrik gabe uzten dira Konstituzio Auzitegiak eman izan dituen ezaugarriak eta, larriagoa dena, hautsi egiten da Konstituzioko 31. artikuluan aldarrikaturiko zerga sistemaren aurrekoitasun hatsapena betetzeko sortu den eta iraun duen zerga baten hasierako filosofia. Hori dela eta, Nazioko Gobernuak ekarritiko eraberritzea - hau haren kopia fidela delarik - PSOEk errekurritu du Konstituzio Auzitegian.

**ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK**

**1. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK**

**1. EMENDAKINA**

**«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA»**

**PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluko 3. atala aldatzeko emendakina.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeko 41. artikulua 1. puntuko b) letrari buruzkoa.

Esaten duenean “... erregelamenduz ezartzen diren koefizienteak aplikatuz gaurkotuko da, ...”, esan behar du “... dagokion Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean ezartzen diren koefizienteak aplikatuz gaurkotuko da,...”.

Zioak: Erosteke balioa eguneratzeko koefizienteak funtsezko eragina dute ondare aldaketa finkatzerakoan; Lege proiektuan horiek zehazteko irizpideak finkatzen ez direnez argi eta garbi, beharrezkotzat jotzen dugu lege baten bitartez onartzea, Estatuan egiten denaren antzera.

**2. EMENDAKINA**

**«IZQUIERDA UNIDA-EZKER BATUA DE NAVARRA»**

**PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluko 3. atala aldatzeko emendakina.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeko 41. artikulua 1. puntuko b) letraren 8. lerroaldeari buruzkoa.

Esaten duenean “ ... erregelamenduz ezarriko diren koefizienteak aplikatuz gaurkotuko dira...”, esan behar du “...dagokion Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legean ezarriko diren koefizienteak aplikatuz gaurkotuko dira...”.

Zioak: Erosteke balioa eguneratzeko koefizienteak funtsezko eragina dute ondare aldaketa finkatzerakoan; Lege proiektuan horiek zehazteko irizpideak finkatzen ez direnez argi eta garbi, beharrezkotzat jotzen dugu lege baten bitartez onartzea, Estatuan egiten denaren antzera.

**3. EMENDAKINA**

**«IZQUIERDA UNIDA-  
EZKER BATUA DE NAVARRA»  
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluari bost bis atala gehitzeko emendakina. Horra zer dioen:

“Bost bis. 62. artikulua.

62. artikulua. Ondare gehikuntza eta urripen ez-erregularrak.

1. Ondare gehikuntza eta urripen ez-erregularrak bi multzotan banatuko dira:

a) Ondarearen osaera aldatu bada, bi urte edo gutxiago lehenago eskuratutako ondare-elementuak eskualdatzetik eratorritako gehikuntza eta urripenak.

b) Ondarearen osaera aldatu bada, bi urte baino lehenago eskuratutako ondare-elementuak eskualdatzetik eratorritako gehikuntza eta urripenak.

2. Ondare gehikuntza eta urripen ez-erregularrak beren artean, ez beste inorekin integratu eta konpentsatuko dira, aurreko zenbakian aipatzen den multzo bakoitzaren baitan.

3. Aurreko zenbakiak aipatzen dituen integrazio eta konpentsaziotik ateratako emaitzak saldo negatiboa ekartzen badu bi multzoetan, horren zenbatekoa konpentsatuko da ondorengo bost urteetan agertzen diren multzo bereko gehikuntza ez-erregularrekin.

4. Aurreko zenbakiak aipatzen dituen integrazio eta konpentsaziotik ateratako emaitzak saldo negatiboa ekartzen badu multzo batean eta positiboa bestean, negatiboa positiboarekin konpentsatu ahalko da, positiboaren kopurua muga izango delarik.

Aurreko lerroaldeak aipatzen duen konpentsazioaren ondoren saldo positiborik geratzen baldin bada taldeetako batean, 58. artikuluko bigarren zenbakiak aipatzen dituen ondare urripen erregularren kopurua kenduko zaio, hala bada, saldo positiboaren kopurua muga izango delarik.

5. Bigarren zenbakiak aipatzen dituen integrazio eta konpentsaziotik ateratako emaitzak saldo positiboa ekartzen badu bi multzoetan, 58. artikuluko bigarren zenbakiak aipatzen dituen ondare urripen erregularren kopurua kenduko zaio a) multzoari doakionari, saldo positibo horren kopurua muga izango delarik.

Aurreko lerroaldeak aipatzen duen eragiketaren ondoren, 58. artikuluko bigarren zenbakiak

aipatzen dituen ondare urripen erregularrik konpentsatzeke geratuko balitz, b) multzoari dagokion saldo positiboari kenduko zaio aipatu ondare urripen erregularren zenbatekoa, saldo positibo horren kopurua muga izango delarik.

6. Aurreko hiru zenbakiak aipatzen duten konpentsazioa ez da inolaz ere egingen bost urteko epe horretatik kanpo, ondorengo ekitaldietako ondare-urripen ez-erregularrei pilatuz.

Zioak: Estatuko arautegiak, ekainaren 7ko 7/1996 Errege Dekretu Legeak, alegia, aurreikusi egin du zerga-aurrerakoitasunari eustea, ondarearen osaeraren aldaketa gertatzen baldin bada, bi urte edo gutxiago lehenago eskuratutako ondare-elementuak eskualdatzetik eratorritako ondare-gehikuntza ez-erregularrak zergapetzerakoan.

Nafarroako IU/EBtik ontzat jotzen dugu Estatuko arauen tratamendu hori gureganatzea.

**4. EMENDAKINA**

**«IZQUIERDA UNIDA-  
EZKER BATUA DE NAVARRA»  
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluari Bost bikoitza bis atala gehitzeko emendakina. Hona zer dioen:

“Bost ter. 63. artikulua.

63. artikulua. Errenta ez-erregularra.

1. Errenta ez-erregularraren zenbatekoa osatzeko, honako magnitude hauen batuketa egin behar da:

a) 61. artikulua 1. zenbakian ezarritako eragiketen emaitza positiboa.

b) Aurreko artikulua 4. eta 5. zenbakietan ezarritakoa aplikatu ondotik ateratzen den saldo positiboa, halakorik bada.

2. Aurreko zenbakian ezarritako errenta ez-erregularraren zenbatekoa, Zergaren zerga-oinarriaren zati ez-erregularra izanen da.

Zioak: Estatuko arautegiak, ekainaren 7ko 7/1996 Errege Dekretu Legeak, alegia, aurreikusi egin du zerga-aurrerakoitasunari eustea, ondarearen osaeraren aldaketa gertatzen baldin bada, bi urte edo gutxiago lehenago eskuratutako ondare-elementuak eskualdatzetik eratorritako ondare-gehikuntza ez-erregularrak zergapetzerakoan.

Nafarroako IU/EBtik ontzat jotzen dugu Estatuko arauen tratamendu hori gureganatzea.

**5. EMENDAKINA**

**«IZQUIERDA UNIDA-  
EZKER BATUA DE NAVARRA»  
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluko seigarren atala kentzeko emendakina.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeko 67. artikulua 1. puntuko b) letrari buruzkoa.

Zioak: Pentsio planetarako ekarpenen ondoriozko zerga oinarriaren gehieneko murrizketa 750.000 pezetatik 1.000.000 pezetara igo nahi du Lege proiektuak. Horren ondorioz, errenta altuei baino ez zaie mesede egingo, (alegia, lanbide edota enpresari jardueren errendimendu garbiak eta lanaren ondoriozko errentak urteko 5.000.000 pezetatik gorakoak badira). IU/EBk uste du proposatutako muga gehiegizkoa dela.

**6. EMENDAKINA**

**«IZQUIERDA UNIDA-  
EZKER BATUA DE NAVARRA»  
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluko zazpigarren atala ordezkatzeko emendakina.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeko 68. artikuluari.

Honela geratuko da idatzita:

“68. artikulua. Likidazio-oinarri ez-erregularra.

Likidazio-oinarri ez-erregularra zerga-oinarriaren zati ez-erregularrak osatuko du, zeina, hala bada, hiru zatitan banatuko baita:

a) Errendimendu ez-erregularrak.

b) Ondarearen osaera aldatu bada, bi urte edo gutxiago lehenago eskuratutako ondare-elementuak eskualdatzetik eratorritako ondare-gehikuntzak.

b) Ondarearen osaera aldatu bada, bi urte baino lehenago eskuratutako ondare-elementuak eskualdatzetik eratorritako ondare-gehikuntzak.

Zioak: Estatuko arautegiak, ekainaren 7ko 7/1996 Errege Dekretu Legeak, alegia, aurreikusi egin du zerga-aurrerakoitasunari eustea, ondarearen osaeraren aldaketa gertatzen baldin bada, bi urte edo gutxiago lehenago eskuratutako ondare-elementuak eskualdatzetik eratorritako ondare-gehikuntza ez-erregularrak zergapetzerakoan.

Nafarroako IU/EBtik ontzat jotzen dugu Estatu-ko arauen tratamendu hori gureganatzea.

**7. EMENDAKINA**

**«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»  
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Foru Lege proiektuaren 1. artikuluari beste zortzigarren zenbaki bat gehitzeko emendakina, hurrengo edukiarekin:

“Zortzi. 70.1. artikulua.

“Bat. Likidazio-oinarri erregularra ondoko eskalan zehazten diren tasen arabera kargatuko da

Likidazio-oinarria pta. hauetaraino	Kuota osoa	Likidazio-oinarriaren gainerakoa pta. hauetaraino	Tasa aplikagarria (ehunekoa)
531.000	0	531.000	20
1.062.000	106.200	531.000	22
1.593.000	223.020	531.000	24
2.124.000	350.460	531.000	26
2.655.000	488.520	637.150	28
3.292.150	666.922	637.150	30
3.929.300	858.067	637.150	32
4.566.450	1.061.955	637.150	34
5.203.600	1.278.586	637.150	36
5.840.750	1.507.960	637.150	38
6.477.900	1.750.077	637.150	40
7.115.050	2.004.937	637.150	42
7.752.200	2.272.540	637.150	44
8.389.350	2.552.886	637.150	46
9.026.500	2.845.975	637.150	48
9.663.650	3.151.807	637.150	51
10.300.800	3.476.754	aurrerakoan	53

Bi. Foru Lege proiektuko 1. artikuluan zegoen zortzigarren zenbakia bederatzigarren bihurtuko da.

Zioak: Zergaren tarifa 1997rako iragarritako inflazioari egokitzea. Emendakina onartuz gero, erregelamenduz onartu ahalko da lan etekinen konturako atxikipenen taula berria, 1997ko urtarrilaren 1etik aitzina indarra izango duena.

**8. EMENDAKINA**

**«IZQUIERDA UNIDA-  
EZKER BATUA DE NAVARRA»  
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

1. artikuluko zortzigarren atala ordezkatzeko emendakina.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeko 71. artikuluari.

Honela geratuko da idatzita:

“71. artikulua. Karga-tasa.

1. Errendimenduek osatutako likidazio-oinarri ez-erregularraren zatia ondoko tasarik handienaren arabera kargatuko da:

a) Karga eskala errendimenduek osatutako likidazio-oinarri ez-erregularraren zatiaren 100eko 50ari aplikatzearen ondoriozko batez besteko tasa.

b) Aitzineko artikulua 2. zenbakian definitutako batez besteko karga-tasa.

2. Ondarearen osaera aldatu bada, bi urte edo gutxiago lehenago eskuratutako ondare-elementuak eskualdatzetik eratorritako ondare-gehikuntzek osatutako likidazio-oinarri ez-erregularraren zatia ondoko tasarik handienaren arabera kargatuko da:

a) Karga eskala likidazio-oinarri ez-erregularraren zati honen 100eko 50ari aplikatzearen ondoriozko batez besteko tasa.

b) Aitzineko artikulua 2. zenbakian definitutako batez besteko karga-tasa.

3. Ondarearen osaera aldatu bada, bi urte baino lehenago eskuratutako ondare-elementuak eskualdatzetik eratorritako ondare-gehikuntzek osatutako likidazio-oinarri ez-erregularraren zatiari 100eko 20ko tasa kargatuko zaio.

Zioak: Estatuko arautegiak, ekainaren 7ko 7/1996 Errege Dekretu Legeak, alegia, aurreikusitako zerga-aurrerakoitasunari eustea, ondarearen osaeraren aldaketa gertatzen baldin bada, bi urte edo gutxiago lehenago eskuratutako ondare-elementuak eskualdatzetik eratorritako ondare-gehikuntza ez-erregularrak zergapetzerakoan.

Nafarroako IU/EBtik ontzat jotzen dugu Estatu-ko arauen tratamendu hori gureganatzea.

### 3. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINA

#### 9. EMENDAKINA

##### «IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

3. artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: Ondare gehikuntza eta urripenak zehazteko prozedura ez aldatzea arau berriak indarrean

sartu aurretik subjektu pasiboak eskuratutako ondare-elementuendako.

### 4. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINA

#### 10. EMENDAKINA

##### «IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

4. artikulua kentzeko emendakina.

Zioak: 1996an gauzatutako ondare gehikuntza ez-erregularraren tributazio aurrerakoia ez kentzea.

### XEDEPEN IRAGANKORRARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

#### 11. EMENDAKINA

##### «IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen Iragankorra kentzeko emendakina.

Zioak: Ondare gehikuntza eta urripenak zehazteko prozedura ez aldatzea arau berriak indarrean sartu aurretik subjektu pasiboak eskuratutako ondare-elementuendako.

#### 12. EMENDAKINA

##### «IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Xedapen Iragankorra gehitzeko emendakina.

Horra edukia:

“Xedapen Iragankorra

Foru Lege hau indarrean sartu aurretik eskuratutako ondare-elementuak eskualdatzetik eratorritako ondare gehikuntza eta urripen ez-erregularraren araubide iragankorra.

Foru Lege hau indarrean sartu aurretik eskuratutako ondare-elementuak eskualdatzetik eratorritako ondare gehikuntza eta urripen ez-erregularrak finkatu eta kargatzeko, 1996ko urtarrilaren 1ean indarrean zeuden Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko maiatzaren 14ko 6/1992 Foru Legeko xedapenak hartuko dira kontuan.

## Balioak Eguneratzeari buruzko Foru Lege proiektua

### AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritako betez, Balioak Eguneratzeari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztu zaizkion emendakinek Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agintzen da. Proiektu hori 1996ko azaroaren 21eko 62 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 5ean

Lehendakariordea: M<sup>a</sup> Rosario Villanueva Iturralde

### OSOAREKIKO EMENDAKINAK

#### «NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

##### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Nafarroako Demokratikoen Elkargunea Parlamentari Taldeak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoarekin bat, Balioak Eguneratzeari buruzko Foru Lege proiektuari osoko emendakina aurkezten dio.

Zioak: Zerga erreforma honen helburua dugu kapitalen errenten zerga egoera hobetzea, haien gaineko zerga zama arinduz. Ogasun Publikoak Sozietateen gaineko Zerga dela eta jasotzen dituen dirusarrerak nahikoa murriztea ekarriko luke, epe erdira.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Lege proiektuak duen esanahi atzerakoi berbera du, gainbalioari begiratuz gero, sistema osoaren aurrerakoitasun eta zuzentasuna ezabatuz doalako eta kapital errenten gaineko zerga zama murriztu eta lanaren errenten gaineko benetako zama handiagoa izatea errazten duelako: azken finean dirubilketa nabarmen murrizten da eta ez dago lanpostuak sortzeko edo mantentzeko bermerik.

Kapital errentendako zuzeneko onura da, inongo ordainik gabe.

Gure Taldeak uste du ari garen ekinbide honi oniritzia emateko aukera bakarra dela fiskalitate guztia hartuko lukeen neurri multzo baten baitan kokatzea, alegia, kapital errentendako onurak lanaren errenten fiskalitatearen hobekuntzekin orekatu, horien zerga ahalegina murriztu eta sistemaren aurrerakoitasuna eta zuzentasunari eutsi. Orobat, iruzurrari aurka egiteko neurriak paratu

elkartasun gutxien erakusten duten alorrei eragiteko, onurak eta betebeharrak orekatuz.

Dirubilketak jasango duen kalteak eragina izango du Nafarroako Ogasunaren birbanatzeko gaitasunean, finantza-askitasunean eta inbertsioan. Horiek horrela hurrengo erabakia hartzea proposatzen dugu:

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 126.5 artikulua ezarritakoarekin bat, Gobernuari itzuli zaio Balioak Eguneratzeari buruzko Foru Lege proiektua."

#### «IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

##### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Osoarekiko emendakina, Balioak Eguneratzeari buruzko Foru Lege proiektua itzultzeko.

Zioen azalpena: Balioak Eguneratzeari buruzko Foru Lege proiektuarekin, ohiz kanpoko gainbalioen tratamenduaren erreformarekin bezala, Nafarroako Gobernuak beste zerga-administrazioen ekinbideak kopiatu besterik ez du egin; hauxe egin nahi dute oraingo honetan: Estatuko administrazioak 1996ko ekainean onartu eta enpresari eta profesionalen errentak onuradun dituen ekinbidea foru arautegiratzea.

Balioak Eguneratzeari buruzko Foru Lege proiektuarekin lortu nahi diren zerga injinerutza eragiketen modukoak janzteko erabili diren argudioek ez dute pisurik, Nafarroako IU/EBren usteetan, eta zuriketa hutsak baino ez dira.

Hartara, eguneratzea ez da beharrezkoa enpresek inoren aurrean frogatzen euren aktiboaren benetako balioa ateratzen den kaudimena, izan ere, enpresek euren ondare egoera egiazta- tzeko nahiko baliabide badira, balantzean kontabilizatzen diren enpresari aktiboak balio historikoa aldatu gabe.

Balio historikoak edo erosketa-balioak aldatzeak arrisku bat dakar, gainera, garrantzi handia duen dokumentua, balantzeaz ari gara, merkatuaren aldiaren aldiko gorabeheren menpe uztea, alegia, eta enpresari balantzeen interpretazio zuzena eragozteko.

Inflazioari gagozkiolarik, halaber, gogoratu behar da arautegiak bide ematen duela metatutako moneta eguneratzea aktiboa saltzeko unean egiteko, alegia, ondare aldaketa gertatzen dene-



an, eta ondorioz ez dela prezioen igoeratik dato-  
rren benetako galerarik.

Beste alde batetik, benetako zerga zama murriztuz lortu nahi badute enpresen balizko baliabideak inbertsio gehiago egiteko erabiltzea, borondate hutsezko planteamenduaren aurrean gaude, Lege proiektuak inoiz ez duelako lotzen eguneratzeak dakarren zerga onura inbertsio aha-  
legina gehitzearekin.

Funtsean, neurria onartuz gero lortuko den benetako ondorioa izango da Administrazioak neurritz gaineko eta funtsgabeko zerga kostua leporatzea.

Zerga-kostu horrek, Departamentuak berak dioenaren arabera, 30.000 milioi pezeta joko luke guztira, gutxienez, eta horri gehitu behar zaio Nafarroako Gobernuak ez duela Lege proiektuan sartu enpresari eta profesionalak 1997an ordaindu beharreko "bidesaria" izeneko, alegia, lortutako birbalorazioaren %3a; Estatuko Gobernuak, ordea, aintzat hartu du "bidesari" hori, eta azken finean sartzan ez bada, foru altxorrendako kos-  
tua 3.000 milioi pezeta izan daiteke 1997ko ekitaldian, Departamentuak berak dioenaren arabera.

Beste azterlan batzuen arabera, dirubilketaren murrizketa askoz handiagoa izango litzateke (45.000 milioi pezeta inguru). Edonola ere, Nafarroako administrazio publikoen finantza-askitasu-  
nari kalte larria eragiten dion neurri baten aurrean gaude.

Beraz, Gobernuak aurkeztu duen proiektuaz Nafarroako IU/EBk duen iritzia guztiz ezezkorra da, jakina, eta aurkakoa, argi eta garbi, hurrengo-  
ak dituelarik ardatz nagusi:

– Enpresari eta profesinalen errenten zerga tratamenduaren hobekuntza nabarmena dakarrenez, ordainetan lanaren errentei inongo mesederik egin gabe, lanaren errenten kontrako desoreka handiagoa eragingo luke zerga sisteman, lanaren errentek dirubilketa osoaren baitan duten gehie-  
gizko portzentaia handitu egingo litzateke eta.

– Foru ogasunak dirua biltzeko duen ahalmena nabarmen jaitea dakar eta, ondorioz, Nafarroako administrazio publikoen finantza askitasunaren murrizpena.

– Kopiatu egiten dira, funtsean, beste zerga-administrazio batzuek hartu dituzten neurriak eta uko egiten zaio zerga politika autonomo eta berezia egiteari.

Horiek horrela, "Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra" Parlamentari Taldeak proposatu du:

Balioak Eguneratzeari buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzea.

### «EZKER ABERTZALEA»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Adolfo Araiz Flamarique, "Ezker Abertzalea" Talde Parlamentarioko eleduna naizen honek, Legebiltzarreko Araudiko 126. artikulua ariena, Balioak Eguneratzeari buruzko Foru Lege proiektuari osotasuneko emendakina aurkezten diot, eskatuz Nafarroako Foru Aldundiari itzulia izan dakion.

Hona eskakizun horren argudioak:

Balioak Eguneratzeari buruzko Foru Lege proiektu hau, beste neurri fiskal batzuek bezalaxe, enpresa mailako errenten babeserako dago asmatu-  
rik, inolako ordainik gabe abantaila horren truke Hazienda Foralarentzako Aktiboen berbalor-  
ratzeak zerga eskuratzearen murrizpena ekarriko du, nahiz eta berrorren bitartez azaldurik geldituko diren ondasun gehiagotze garrantzitsuak.

### «EUSKO ALKARTASUNA-ASKOTARIKO»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Osoarekiko emendakina, Foru Lege proiektua Gobernuari itzultzea proposatzen duena.

Zioak: Foru Lege proiektuaren eduki batzuekin ados egon arren, Parlamentuko Talde honek uste du, Parlamentuan sortu denez gero zerga-araute-  
gia eta horren aldaketa aztertu eta ikertzeko Batzordea, proiektuak hartzen duen zatiko ere-  
mua dela eta, azterketa berezia mereziko lukeela indarrean dagoen gainerako arautegia kontuan izanik. Beraz, bere ustea da, aipatu proiektua ez dela izapidatu behar arestiko azterketa egin aurre-  
tik.

### ARTIKULUEI AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

#### 4. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

##### 1. EMENDAKINA

### «IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluko 2. lerroaldea aldatzeko emendaki-  
na.

Esaten duenean "..., eta hurrengoak hartu ahal izango dituzte kontutan:", esan behar du "..., eta hurrengoak hartuko dituzte kontutan:".

Zioak: Nor bere baliabideekin finantzatu den aktibo finkoaren zatia hartu behar du eguneratzeak, Lege proiektuaren zioen azalpenak berak diotenaren arabera. Ez da erregelamenduzko garapenean kontutan har daitekeen aukera gisa ikusi behar, baizik eta eguneratze prozeduran derrigorez agertu beharreko faktore gisa.

## 2. EMENDAKINA

### «IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

4. artikuluko a) letra aldatzeko emendakina.

Esaten duenean "... ezarri ahalko da...", esan behar du "... ezarriko da...".

Zioak: Nor bere baliabideekin finantzatu den aktibo finkoaren zatia hartu behar du eguneratzeak, Lege proiektuaren zioen azalpenak berak diotenaren arabera. Ez da erregelamenduzko garapenean kontutan har daitekeen aukera gisa ikusi behar, baizik eta eguneratze prozeduran derrigorez agertu beharreko faktore gisa.

## 6. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINA

## 3. EMENDAKINA

### «IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko emendakina. 6. artikuluko 2. zenbakia aurkeztua.

Hurrengo testua gehitu lerroaldearen bukaeran: "... baina ez du ondorioz izango Sozietateen gaineko Zergaren 1997ko lehen zatikako ordainketan, ezta Pertsoan Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren 1997ko lehen bi zatikako ordainketetan ere".

Zioak: Ekainaren 7ko 7/1996 Errege Dekretu Legeak aurreikusi egin ditu eguneratzearen zerga ondorioen atzerapenak, balioen eguneratzeak aurrekontuko defizit publikoa larriagotu ez dezan 1997an; Foru Komunitatean ere Aurrekontu Orokorrei buruzko proiektuak aurrekontu defizitaren aurreikuspena egiten duenez, egoki litzateke eguneratzearen zerga ondorioak atzeratzea, lurralde amankomunean egin den bezala.

## 8. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

## 4. EMENDAKINA

### «IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

8. artikuluko 3. zenbakia kentzeko emendakina.

Hurrengo testua kendu: "...edota hura gauzatzeko epea igaro arte."

Zioak: Nafarroako IU/EBk uste du beti egin behar dela egiaztapena.

## 5. EMENDAKINA

### «IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

8. artikuluko 6. zenbakiko lehen lerroaldea kentzeko emendakina.

Hurrengo testua kendu: "...edota egiaztapena egiteko epea igarota."

Zioak: Nafarroako IU/EBk uste du beti egin behar dela egiaztapena.

## 10. ARTIKULUARI AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK

## 6. EMENDAKINA

### «IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

10. artikuluko 1. zenbakiko lehen lerroaldea kentzeko emendakina.

Hurrengo testua kendu: "...edo hori egiteko epea igaro baino lehen,..."

Zioak: Nafarroako IU/EBk uste du beti egin behar dela egiaztapena.

## 7. EMENDAKINA

### «IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko emendakina, 10. artikuluari aurkeztua.

3. zenbakia gehitu, horra zer dioen:

“3. Artikulu honek aurreikusitakoetan ez da bidezko izango erabilitako edo aplikatutako saldoari dagokion karga itzultzea.”

Zioak: Lege proiektuan sartu gainbalioari ezarzen zaion karga eta Foru Ogasunak itzuli beharrik ez duelakoa, birbalorazioa erabili ezina hautsiz gero.

## 8. EMENDAKINA

### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Gehitzeko emendakina, 10. artikuluari aurkeztua.

3. zenbakia gehitu, horra zer dioen:

“3. Artikulu honek aurreikusitakoetan ez da bidezko izango erabilitako edo aplikatutako saldoari dagokion karga itzultzea.”

Zioak: Gure Taldeak uste du balioak eguneratzeko aukera egin duten pertsona fisiko zein juridikoei karga tasa ezarri behar zaiela, bidezkotzat jotzen dugu, beraz, zergaren subjektu pasiboak araua hautsiz gero itzulketarako eskubiderik ez izatea.

## 9. EMENDAKINA

### «IZQUIERDA UNIDAEZKER BATUA DE NAVARRA»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

IV. Kapitula gehitzeko emendakina. Horra zer dioen:

#### IV. Kapitula

Gainbalioari ezarri beharreko karga.

11. artikulua. Gainbalioaren tributazioa.

1. Gainbalioaren kopurua ez da Sozietateen gaineko Zergaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarrietan sartuko.

2. Aurreko zenbakiak dioena gorabehera, 1. artikulua aipatzen dituen subjektu pasibo eta enteek eguneratzea egiten baldin badute, birbalorazio kontuaren saldo hartzekodunaren gaineko 100eko 3ko tasa bakarria ordaindu beharko dute. Zerga zorra izango da hori.

3. 9. artikulua aipatzen duen aitortpena aurkezteko epean egin beharko dira karga bakar hori autolikidatu eta ordaintzea.

4. Karga bakar horren zenbatekoa ez da Sozietateen gaineko Zergaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuotatzat joko, ezta aipatu Zergetatik kentzeko gastutzat ere, eta birbalorazio kontuari kargatuko zaio.

5. Administrazioaren egiaztapenaren ondorioz birbalorazio kontuaren saldoa murrizten baldin bada, murrizketari dagokion karga kopurua itzuliko du Administrazioak.

Zioak: Gainbalioari karga ezartzea, eguneratzeak duen biltze kostua hein batean bederen murrizteko.

## 10. EMENDAKINA

### «SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

#### PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

IV. Kapitula gehitzeko emendakina, “Gainbalioari ezarri beharreko karga” izenburuarekin. 11. artikulua jasoko du. Horra zer dioen:

#### IV. Kapitula

Gainbalioari ezarri beharreko karga.

11. artikulua. Gainbalioaren tributazioa.

1. Gainbalioaren kopurua ez da Sozietateen gaineko Zergaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga oinarrietan sartuko.

2. Aurreko zenbakiak dioena gorabehera, 1. artikulua aipatzen dituen subjektu pasibo eta enteek eguneratzea egiten baldin badute, birbalorazio kontuaren saldo hartzekodunaren gaineko 100eko 3ko tasa bakarria ordaindu beharko dute. Zerga zorra izango da hori.

3. 9. artikulua aipatzen duen aitortpena aurkezteko epean egin beharko dira karga bakar hori autolikidatu eta ordaintzea.

4. Karga bakar horren zenbatekoa ez da Sozietateen gaineko Zergaren eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuotatzat joko, ezta aipatu Zergetatik kentzeko gastutzat ere, eta birbalorazio kontuari kargatuko zaio.

5. Administrazioaren egiaztapenaren ondorioz birbalorazio kontuaren saldoa murrizten baldin bada, murrizketari dagokion karga kopurua itzuliko du Administrazioak.

Zioak: Talde honek egokitzen jotzen du ehuneko 3ko karga-tasa ezartzea balioak eguneratzeko aukera egiten duten pertsona fisiko eta juridikoei.

**11. EMENDAKINA****«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO  
DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Balioak Eguneratzeari buruzko Foru Lege proiektuaren zioen adierazpenari lerroalde bat

gehitzeko emendakina. Horra edukia:

“Azkenik, birbalorazio kontuaren saldoari ehuneko 3ko karga autonomo eta bakarra ezarri zaio”.

Zioak: Talde honek egokitzen jotzen du ehuneko 3ko karga-tasa ezartzea balioak eguneratzeko aukera egiten duten pertsona fisiko eta juridikoei.

---

## **Foru Lege proiektua, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzkoa**

**AURKEZTUTAKO EMENDAKINAK**

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritako betez, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztu zaizkion emendakinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agintzen da. Proiektu hori 1996ko azaroaren 15eko 60 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1996ko abenduaren 11n

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

onartu zuen azkeneko osoko bilkuran. Honek nabarmen aski erakutsi du Biltzarra ados dagoela legegintza-ekimen honekin. Berau egun emendakinak aurkezteko epean dago.

Hortaz, ondorengo osoko emendakina proposatzen da:

“Jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzko Foru Lege proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzea.”

**OSOAREKIKO EMENDAKINAK****«NAFARROAKO DEMOKRATEN  
ELKARGUNEA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

“Nafarroako Demokratikoen Elkargunea” Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 126. artikulua ezarritakoarekin bat etorritik, osoko emendakina aurkezten dio “Jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei” buruzko Foru Lege proiektuari, Nafarroako Gobernuak bideratua izan dadin igorri duena.

Emendakina aurkezten duen taldearen aburuz, proiektua ez da egokia, bere jatorria baita oraingo Gobernuak Parlamentuan bideratzen ari zen beste proiektu bat, berdina zena, erretiratu egin zuela, gero berriz igortzeko erretiratzea justifikatzea beste helbururik ez duen funtsik gabeko xedapen gehigarri bat gehitu ondoren.

Erretiratze horren ondoren, hasierako testu berbera zuen lege proposamen bat aurkeztu zen, eta Parlamentuak proposamen honen bideraketa

**«EUSKO ALKARTASUNA-ASKOTARIKO»  
PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

“Eusko Alkartasuna-Askotariko” Parlamentari Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduko 126. artikuluan ezarritakoaren babesean, Nafarroako Gobernuak igorri duen Jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzko Foru Lege proiektuari osotasuneko emendakina aurkezten dio.

Osoarekiko emendakina.

“Itzul bekio Nafarroako Gobernuari Jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzko Foru Lege proiektua”.

Zioak: Proiektua ez-orduan aurkeztu da, Parlamentuak, Osoko Bilkuran, onartu baitu Eusko Alkartasuna-Askotariko Parlamentari Taldeak igorritako Lege proposamena, Gobernuak igorritako Proiektuaren eduki bera daukana, aintzat hartzea.

Lege proposamen horren testuaren edozein aldaketa, gehikuntza edo ordezpenez egoki den eztabaida-jardueran hein bateko emendakinen bidez egin beharko da.

## **Foru Lege proiektua, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzkoa**

### *ATZERA BIDALITAKO PROIEKTUA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko abenduaren 9an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Foru Diputazioak, 1996ko abenduaren 4an hartutako Erabakiaren bidez, jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzko Foru Lege Proiektua atzera bidali du, Biltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoaren babesean. Hori horrela, hona

ERABAKIA:

**Lehena.** Jarduera ekonomikoetako poligonoak herrietan sustatzeko laguntzei buruzko Foru Lege Proiektua atzera bidali dela jakitun dagoela adieraztea.

**Bigarrena.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1996ko abenduaren 10an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía





NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu

<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat ..... 5.700 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 125 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 160 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--